



**Recurso nº 4/2011 Errekurtsoa**  
**Resolución nº 1/2012 Ebazpena**

Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Batzordekidea / Vocal

M<sup>a</sup> Aránzazu Arana Learte

Idazkaria-batzordekidea / Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

AKROPOST GIPUZKOA SL – AKROPOST SERVICIOS POSTALES DEL PAÍS VASCO SA – M.F. PUBLIMAILING aldi baterako enpresa batasunak ezarritako errekurtso berezia. Gaia: kontratazioa. Noren aurka: Foru Administrazioako eta Funtzio Publikoko Departamentuko Foru Diputatuaren 2011ko azaroaren 21eko Foru Agindua, zeinaren bidez ebazten baita, batetik, amaitzea SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOSrekin “posta zerbitzua Foru Kontratazioko Zentralaren bidez kontratatzeko akordio markoa” (X11032 espedientea), eta, bestetik, errekurtsoa jarri duen aldi baterako enpresa batasuna kanpoan uztea lizitatzailari eskatzen zaion puntuazio maila gutxienezkoa ez gainditzeagatik. Kontratu Errekurtsoen Foru Administrazioako Epaitegiak, 2012ko urtarrilaren 25eko bileran, goian aipatzen diren kideak bertaratu direlarik, erabaki hau hartu du aho batez:

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la UTE AKROPOST GIPUZKOA S.L. – AKROPOST SERVICIOS POSTALES DEL PAÍS VASCO S.A. – M.F. PUBLIMAILING, S.L. contra la Orden Foral de la Diputada Foral del Departamento de Administración Foral y Función Pública de 21 de noviembre de 2011, por la que se resuelve concluir con la SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS el “Acuerdo Marco para la contratación del servicio postal a través de la Central de Contratación Foral” (expediente nº X11032), y excluir a la UTE recurrente por no superar el umbral mínimo de puntuación exigido al licitador, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada el día 25 de enero de 2012, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

**AURREKARIAK**

**LEHENENGO.-** 2011ko abenduaren 14an, Foru Administrazioako eta Funtzio Publikoko Departamentuaren erregistroan idatzi bat sartu zen. Bertan, (...), AKROPOST GIPUZKOA SL – AKROPOST SERVICIOS POSTALES DEL PAÍS VASCO SA – MF PUBLIMAILING SL aldi baterako enpresa batasunaren izenean, errekurtso berezia jarri zuen Foru Administrazioako eta Funtzio Publikoko Departamentuko Foru Diputatuaren 2011ko azaroaren 21eko Foru Aginduaren aurka, zeinaren bidez ebazten baita, batetik, amaitzea SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOSrekin “posta zerbitzua Foru Kontratazioko Zentralaren bidez kontratatzeko akordio markoa”, X11032 espedientea (Lizitazio

**ANTECEDENTES DE HECHO**

**PRIMERO.-** El día 14 de diciembre de 2011 tuvo entrada en el registro del Departamento de Administración Foral y Función Pública un escrito por el que (...), actuando en nombre y representación de la UTE AKROPOST GIPUZKOA S.L. – AKROPOST SERVICIOS POSTALES DEL PAÍS VASCO S.A. – M.F. PUBLIMAILING, S.L., interpone recurso especial en materia de contratación contra la Orden Foral de la Diputada del Departamento de Administración Foral y Función Pública de 21 de noviembre de 2011, por la que se resuelve concluir con la SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS (CORREOS) el “Acuerdo Marco para la contratación del servicio postal a través de la Central de Contratación Foral” (expediente nº



iragarkia 2011ko abuztuaren 12an argitaratu zen (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean) eta, bestetik, errekurtsoa jartzen duen aldi baterako enpresa kanpoan uztea lizitatzailerari hautapen prozesuan jarraitzeko eskatzen zaion puntuazio maila gutxienezkoa ez gaitzateagatik, administrazio baldintza orrien IV. Eranskinean jasotako esleipen irizpideei jarraikiz.

**BIGARREN.-** 2007ko urriaren 30eko Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legearen 315. artikuluari jarraikiz, errekurtsoa aurkeztuta esleipen egintza eten egin zen.

**HIRUGARREN.-** Abenduaren 22an, Epaitegi honek hauek jaso zituen: errekurtsoa, kontratazio espediente eta Foru Administrazio eta Funtzio Publikoko Departamentuaren Zerbitzu Orokorretako Zerbitzuak emandako txostena Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 316.2 artikuluari jarraikiz, lege hori baita kontratazio espediente hori arautzen duena Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Araugilea, Testu Bateginaren lehenengo xedapen iragankorra) indarrean sartu aurretik hasi baitzen.

**LAUGARREN.-** Abenduaren 27ko ofizioaren bidez, epaitegi honek (...) eskatu zion aurkez zezala, hiru egun balioduneko epean, M. F. PUBLIMAILING SL enpresaren ordezkari zela kreditatzen zuen dokumentu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 314.5 artikuluari jarraikiz. Errekerimenduari erantzunez, 2012ko urtarrilaren 16an notaritzako eskritura bat aurkeztu zuen, ordezkari zela kreditatzen zuena.

**BOSGARREN.-** Data bereko ofizioaren bidez, Epaitegiak errekurtsoaren berri eman zien gainerako lizitatzailerari, hartara bost egun balioduneko epean alegazioak egin zitzaten nahi izanez gero, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 316.3 artikuluari jarraikiz. Tramite hori betez, kontratuaren esleipendunak, CORREOSek, alegazioak aurkeztu zituen Epaitegi honetan 2012ko urtarrilaren 9an. Beste lizitatzailerak, GUPOSTek, ez du aurkeztu.

X11032), cuyo anuncio de licitación fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 12 de agosto de 2011, y excluir a la UTE recurrente por no superar el umbral mínimo de puntuación exigido al licitador para continuar en el proceso selectivo, según los criterios de adjudicación recogidos en el Anexo IV del pliego de cláusulas administrativas.

**SEGUNDO.-** De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 315 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público (LCSP), una vez interpuesto el recurso quedó en suspenso el acto de adjudicación.

**TERCERO.-** El día 22 de diciembre se recibió en este Tribunal el recurso junto con el expediente de contratación y el informe emitido por el Servicio de Servicios Generales del Departamento de Administración Foral y Función Pública, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 316.2 de la LCSP, que es la que rige el presente expediente de contratación al haberse iniciado con anterioridad a la entrada en vigor del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, según la disposición transitoria primera de dicho Texto Refundido.

**CUARTO.-** Mediante oficio de fecha 27 de diciembre el Tribunal requirió a (...) para que presentase el documento que acredite la representación de la empresa M. F. PUBLIMAILING S.L. en el plazo de tres días hábiles, de conformidad con lo previsto por el artículo 314.5 de la LCSP. Dando respuesta al requerimiento efectuado, el día 16 de enero de 2012 presentó la escritura notarial acreditativa de la representación del compareciente.

**QUINTO.-** Mediante oficios de la misma fecha el Tribunal dio traslado del recurso a los restantes licitadores para que en el plazo de cinco días hábiles formularan las alegaciones que estimaran convenientes, de acuerdo con lo dispuesto por el artículo 316.3 de la LCSP. En cumplimiento del trámite conferido, la adjudicataria del contrato, CORREOS, presentó alegaciones ante este Tribunal con fecha 9 de enero de 2012. El otro licitador, GUPOST, no las ha formulado.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

### Errekurtsoa onartua izateko aukera

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

### Admisibilidad del recurso



**LEHENENGOA.-** Errekurtso berezi hau jartzeko arrazoiak dira errekurtsogilea kanpoan utzi izana eta posta zerbitzua kontratatzeak Akordio Markoa amaitu izana (2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuz araututako Foru Kontratazioko Zentralaren bidezko erregulazio harmonizatuak arautua). Kontratu guztien balio aurreikusia 3.861.209,68 euro da, zergak kanpo.

Beraz, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 310. artikuluan 1.a) eta 2.b) eta 2.c) ataletan aurreikusitakoaren arabera, kontratazio alorreko errekurtso berezia jar daiteke, eta Auzitegi honek eskumena du horren gainean erabakitzeke, kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboaren sorrerari eta araudiari buruzko 2010eko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuak 2.3.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

**BIGARREN.-** Errekurtsoa jarri duenak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak 312. artikuluan ezarritako legitimazioaren baldintza betetzen du. Beste aldetik, lege bereko 314.2.a artikuluan ezarritako epearen barruan jarri da errekurtsoa, eta 314.1 artikuluan ezarritakoaren arabera alde zuzenetik horren berri eman ondoren.

### Gaiaren mamia

**HIRUGARREN.-** Errekurtsogileak aurkaratu egin du proposamen teknikoari emandako puntuazioa, hain zuzen balio judizioaren mendeko esleipen irizpide ez automatikoen bidez baloratutako alderdiari dagokionez: zehazki, B-“Bulego sarea”ren balorazioari dagokionez. Izan ere, 100 puntutik 40 eskuratu zituen, 2011ko urriaren 26ko balorazio txostenari jarraikiz: *“Euskal Herrian baden estaldura txikia, eta gainerakoan Estatuan ez dena”*. Horren ondorioz, lizitazio prozesutik atera egin zen, ez baitzuen apartatu guztietan eskatzen zen % 50eko puntuazioa gutxienez.

Errekurtsogilea, orobat, ez dago ados puntuazio horren oinarri den balorazio txostenaren arrazoiekin. Zehazki, dio kanpoan uzteko arrazoiak ezin izan daitekeela bulego propioak edo sareko agentziak edukitzea Euskaditik kanpo, zeren eta haren proposamen teknikoak baitio estaldurarik gabeko bidalketak Posta Zerbitzu Unibertsalaren operadore esleipendunak entregatuko dituela (CORREOSek), eta hark ez duela loturirik izango organo kontratatzailearekin. Horretarako, errekurtso idatziarekin batera, CORREOSekin sinatutako sarera sartzeko kontratua aurkeztu du. Alegatzen du pleguek

**PRIMERO.-** El presente recurso especial se interpone contra el acto de exclusión de la recurrente y de conclusión del Acuerdo Marco para la contratación del servicio postal sujeto a regulación armonizada a través de la Central de Contratación Foral regulada por el Decreto Foral 3/2011, de 22 de febrero, siendo el valor estimado del conjunto de contratos de 3.861.209,68 € más impuestos correspondientes.


Por lo tanto, de conformidad con lo dispuesto en los apartados 1.a) y 2.b) y c) del artículo 310 LCSP, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación, y la competencia para conocer del mismo corresponde a este Tribunal, por así venir establecido en el artículo 2.3.a) del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**SEGUNDO.-** El recurso ha sido interpuesto por persona que reúne el requisito de legitimación establecido en el artículo 312 LCSP, dentro del plazo previsto en el artículo 314.2.a) y después de haberlo anunciado previamente en la forma prevista en el artículo 314.1.

### Fondo del asunto

**TERCERO.-** La recurrente impugna la puntuación asignada a su proposición técnica en el aspecto valorado mediante criterios de adjudicación no automáticos dependientes de un juicio de valor, y en particular, en lo relativo a la valoración del criterio B-“Red de oficinas”, en la que obtuvo una puntuación de 40 puntos de 100 al tener, según informe de valoración de fecha 26 de octubre de 2011, *“una cobertura inferior pero existente en el PV y nula en el resto del Estado”*, lo que motivó su exclusión del proceso de licitación al no alcanzar la puntuación mínima exigida del 50% en cada apartado.

La recurrente también discrepa de la motivación del informe de valoración que sirve de fundamento a dicha puntuación. En concreto, considera que su exclusión no puede fundarse en el hecho de no tener oficinas propias o agencias integrantes de su red fuera de Euskadi, porque su proposición técnica indica que los envíos a puntos sin cobertura los entregará el operador adjudicatario del Servicio Postal Universal (CORREOS), que no tendrá vinculación con el órgano contratante, y acompaña al escrito de recurso contrato de acceso a red suscrito con CORREOS, alegando que no lo presentó con la oferta por considerar que los



kontratu hori aurkeztea eskatzen ez zutelakoan ez zuela aurkeztu eskaintzarekin batera eta, orobat, ez zitzaiolako eskatu.

Hori dela eta, errekurtso idatziaren erregutzean eskatzen du Epaitegi honek Akordio Markoren xede den posta zerbitzuaren esleipena ezestea, eskaintza arbitrarioki kanpo utzi delako; orobat, eskatzen du jarduketek atzera egitea, hartara eskaintzak berriro baloratzeko, betiere harena kanpoan utzi gabe.

**LAUGARREN.-** Kontratazio organoak txostenean dio ez dela nahikoa errekurtsogileak Euskadiko Autonomia Erkidegotik kanpo duen bulego sarea (bulego propioak eta agentzia atxikiak), ez baitauka bulego propioak edo agentzia atxikirik EAetik kanpoko Estatuko lurralde eremuan eta ez baitu Correosen sarea haren sarean sartzen, hori guztia baldintza teknikoaren orriek (zeinen aurka ez baita errekurtsorik jarri) 10. apartatuan (Bulego sarea) eskatzen dutenari jarraikiz: *“enpresa lizitatzailerek bulegoak izan beharko dituzte jendearentzako arretarako eta zerbitzurako, eta bereziki Estatuko lurralde guztiko jakinarazpenetarako, eta honako baldintza hauek betetzeko dituzte:...”*

Bestalde, CORREOSek, alegazio idatzian, baietsi egiten du oinarrian aldi baterako enpresa batasun errekurtsogileak ez duela estaldura nazional nahikorik.

**BOSGARREN.-** Errekurtso honetan, eztabaidatzen da errekurtsogilea kanpoan utzi izana proposamen teknikoari emandako puntuazioarengatik (balio judizioaren arabera ebaluagarri den esleipen irizpide baten arabera), hori baita bulego sareen balorazioa.

Epaitegi honen arabera, izaera teknikoa dute proposamen bakoitzari eman beharreko puntuazioa ezartzeko aintzat hartu beharreko judizio elementuek. Epaitegi honen arabera, kasu hauetan aplikagarri da Auzitegi Gorenak behin eta berriz ezarritako dotrina Administrazioaren eskumen teknikoari dagokionez, esaterako 2000ko uztailaren 19ko Epaian (4324/94 kasazio errekurtsoa).

Dotrina horren arabera, irizpide teknikoekin bakarrik ebaluatzen diren alderdiak ezin ditu Epaitegiak zuzendu irizpide juridikoak ezarriz. Horrek ez du esan nahi balorazio horien emaitza ezin duenik Epaitegi honek aztertu, baizik eta azterketa hori balorazioaren alderdi formaletara mugatu behar dela bakarrik: hots,

pliegos no lo exigían, ni se le requirió su aportación.

Por todo ello, en el suplico del escrito de recurso solicita de este Tribunal que se declare la nulidad de la adjudicación del servicio postal objeto del Acuerdo Marco por considerar arbitraria la exclusión de su oferta, y se retrotraigan las actuaciones, de modo que se vuelvan a valorar las ofertas sin la exclusión de la suya.


**CUARTO.-** El órgano de contratación pone de manifiesto en su informe la insuficiencia de la red de oficinas de la recurrente (propias y de agencias adheridas) fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco, al no contar con ninguna oficina propia o agencia adherida en el resto del ámbito territorial estatal y no plantear la red de Correos como parte integrante de su red, todo ello en aplicación de lo exigido por los pliegos de prescripciones técnicas, que no han sido recurridos, en el apartado 10-Red de oficinas, a cuyo tenor *“las empresas licitadoras deberán contar con oficinas para atender al público y el servicio y en especial las notificaciones en todo el territorio del Estado, con las siguientes condiciones:...”*

Por su parte, CORREOS en su escrito de alegaciones corrobora en lo sustancial el argumento de la insuficiente cobertura nacional de la UTE recurrente.

**QUINTO.-** Se discute en el presente recurso la exclusión de la recurrente derivada de la puntuación asignada a su proposición técnica por un criterio de adjudicación evaluable en función de juicios de valor, como es el relativo a la valoración de la red de oficinas.

A juicio de este Tribunal los elementos de juicio a considerar para establecer la puntuación que procede asignar a cada proposición por tales criterios descansan sobre aspectos de carácter técnico. Este Tribunal considera de plena aplicación a tales casos la doctrina reiteradamente sostenida por el Tribunal Supremo con respecto de la denominada discrecionalidad técnica de la Administración en sentencias como la STS de 19 de julio de 2000 (recurso de casación 4324/94).

Según dicha doctrina, los aspectos que se evalúan aplicando criterios estrictamente técnicos no pueden ser corregidos por el Tribunal aplicando criterios jurídicos. Ello no implica que el resultado de este tipo de valoraciones no pueda ser en ningún caso objeto de análisis por parte de este Tribunal, sino que este



eskumen edo prozedura arauetara; edo balorazioan irizpide arbitrario edo baztertzailek aplikatu ote den aztertzeraz; edo akats materialik egin ote den ikustera. Horietatik kanpo, Epaitegiak ezin du Administrazioaren teknikeriek egindako balorazioa ordeztu, haien objektibotasuna ez baita auzitan jartzen, eta Administrazioaren eskumen teknikoak errespetatu behar du arbitrariotasunik edo arrazionaltasunik ezaren frogarik ezearan.

**SEIGARRENA.-** Errekurtso honen kasuari dagokionez, dotrina hori ezarri behar da. Errekurtsogilearen alegazioak eta kontratazio organoaren eta esleipendunaren kontrako argudioak aztertuta, Epaitegi honek ez du antzematen antolamendu juridikoa hausten denik inolako alderdi formaletan, ezta aplikazio arbitrario, baztertzaile edo okerrik ere eskaintza teknikoak baloratzeko irizpideetan; beraz, balorazioaren emaitza baietsi baino ezin du egin. Eta baiesten du kontratazio organoak, B irizpidea "Bulego sarea" baloratzeko, baldintza orrietan eta balorazio irizpideetan esandakoa aplikatu duelako.

Egia, baldintza teknikoaren orriek 10.g) "Bulego sarea" apartatuan diote: *Enpresa lizitatzailleek bulegoak izan beharko dituzte jendearentzako arretarako eta zerbitzurako, eta bereziki Estatuko lurralde guztiko jakinarazpenetarako, eta honako baldintza hauek betetzeko dituzte: (...) Estatuaren gainerako lurraldeko bulegoak: enpresa lizitatzaillearenak, bere taldearenak edo kide den frankizia sarearenak izan ahalko dira.* 10. apartatuan bertan, "Beste alderdi batzuk" puntuan, kasu honetarako, hau aurreikusten da: *Kasu horretan, proposamenean bildu beharko du talde eta sare horretako kide dela egiaztatze dokumentazioa. Azken alderdi hori lizitatzaillearen frankizia kontratua eta enpresa nagusiak enpresa elkartuekiko duen harremanaren zinpeko aitortpenarekin egiaztatuko da.*

Gauza jakina da gure administrazio kontratuen antolamenduan baldintza orriak kontratuen araudia direla kontratistarentzat eta administrazio kontratatzaillearentzat. Beraz, legearen indarra dute alderdientzat. Sektorre Publikoko Kontratuen Legearen 129.1 artikulua arabera, interesdunen proposamenak administrazio-klausula zehatzen agirian ezarritakoari egokitu beharko zaizkio, eta proposamena aurkezteak berekin dakar enpresak baldintzarik gabe onartzea klausula edo baldintza

análisis debe limitarse de forma exclusiva a los aspectos formales de la valoración, tales como las normas de competencia o de procedimiento, a que en la valoración no se hayan aplicado criterios arbitrarios o discriminatorios, o a que no se haya incurrido en error material al efectuarla. Fuera de estos aspectos, el Tribunal no puede sustituir la valoración realizada por los técnicos de la Administración, a los que hay que presumir objetividad, y debe respetar la discrecionalidad técnica de la Administración a falta de prueba alguna de arbitrariedad o irracionalidad.

**SEXTO.-** Por lo que al caso objeto del presente recurso se refiere, debe entenderse de aplicación dicha doctrina. Examinadas las alegaciones de la recurrente y los argumentos en contrario del órgano de contratación y de la adjudicataria, no se aprecia por este Tribunal que concurra infracción del ordenamiento jurídico en ninguno de sus aspectos formales, ni la existencia de aplicación arbitraria, discriminatoria o errónea de los criterios en la valoración de su oferta técnica, por lo que no cabe sino confirmar el resultado de la valoración efectuada. Y ello porque la valoración del criterio B-"Red de oficinas" realizada por el órgano de contratación se ajusta a lo indicado en los pliegos y en los criterios de valoración.

Efectivamente, los pliegos de prescripciones técnicas exigen en el apartado 10.g) "Red de oficinas" que *"Las empresas licitadoras deberán contar con oficinas para atender al público y el servicio y en especial las notificaciones en todo el territorio del Estado con las siguientes condiciones: (...) Oficinas en el resto del Estado: podrán ser de la empresa licitadora, de su grupo o de la red de franquicia a la que esté, en su caso, asociada"*, habiendo previsto previamente para este caso en el mismo apartado 10. "Otros Aspectos" que *"En este caso, deberá incluir en la propuesta la documentación acreditativa de la pertenencia al grupo y a la red asociada. Esta última se acreditará mediante la presentación del contrato de franquicia de la empresa licitadora y una declaración jurada de la empresa principal con la relación de empresas asociadas"*.

Como es sabido, en nuestro ordenamiento contractual administrativo el pliego de condiciones es la legislación del contrato para el contratista y para la Administración contratante, teniendo, por tanto, fuerza de ley entre las partes. Según el artículo 129.1 de la LCSP las proposiciones de los interesados deberán ajustarse a lo previsto en el pliego de cláusulas administrativas particulares, y su presentación supone la aceptación incondicionada por el empresario del contenido de la totalidad de dichas cláusulas o



horien eduki osoa, inolako salbuespenik edo erresalburik gabe.

Hori dela eta, ezin da errekurtso berezi honetan alegatu, aurretik baldintza orrietara jo gabe, orriotan aurreikusten den eskaera (Estatu Osoan edukitzea herritarrei arreta emateko bulegoak, zerbitzua eta bereziki jakinarazpenetarako bulegoak) baztertzailerak denik Foru Aldundiko posta zerbitzuak CORREOSek bakarrik banatu ditzakeenez hurrengo 15 urteetan, hura baita operadore bakarra, errekurtsogilearen arabera, Estatuan %100eko estaldura duena. Edonola ere, kontratazio organoak agerian uzten duen bezala, lehiaketaren emaitzak erakusten du iritzi hori ez dela zuzena, hirugarren lizitatzaileraren proposamen teknikoak % 50eko puntuazioa baino altuagoa jaso baitu eta irizpide horren arabera ez baita baztertua izan, eskaintzan lurraldea estaltzen duen bulego sarea aurkezten baitu, nahiz eta ez estali CORREOSek estaltzen duen mailan.

Euskal Herritik kanpo nahikoa bulegorik edo agentzia atxikirik eza dela eta, errekurtsogilea saiatzeko da zerbitzuaren prestazioa bermatzen estaldurarik ez duen puntuetan, eta horretarako posta zerbitzu unibertsalaren prestaziorako izendatutako operadoreak tramitatzea planteatzen du; baina ez du CORREOSen sarea bere sare barruko dela planteatzen. Horrek ez ditu bermatzen –kontratazio organoaren txostenaren eta enpresa esleipendunaren alegazio idatziaren arabera– 4. Apartatuan (kontratuaren mendeko posta zerbitzuak) agertzen diren bidalketa guztiak. Izan ere, horietako batzuk (hartu izanaren agiria duten igorpen ziurtatuak eta administrazio jakinarazpenak, esaterako), ez daude posta zerbitzu unibertsalean (2010eko abenduaren 30eko 43/2010 Legea, posta zerbitzu unibertsalari, erabiltzaileen eskubideei eta posta merkatuari buruzkoa, 21. artikulua).

2006ko azaroaren 10eko 1298/2006 Errege Dekretuak, zeinaren bidez arautzen baita posta sare publikorako sarbidea eta ezartzen baita posta operadoreen arteko gatazkak konpontzeko prozedura, horiek CORREOSera sartzeko eta haren sarea erabiltzeko eskubidea ematen die, baina eskubide hori posta zerbitzu unibertsaleko zerbitzuetara mugatzen da, errege dekretu horren 2. artikuluari jarraikiz.

Eta errekurtsogileak diotenaren aurka, posta operadoreek akordio bat sinatu behar dute CORREOSekin posta sare publikora sartzeko baldintzak ezartzeko, 1298/2006 Errege Dekretuaren 3. artikulua diotenari jarraikiz. Kontratu hori ez zitzaion

condiciones, sin salvedad o reserva alguna, como lo hizo la recurrente en su proposición técnica.

Por ello, no cabe alegar en este recurso especial, sin haber recurrido previamente los pliegos, que la exigencia en ellos prevista de contar con oficinas para atender al público y el servicio y en especial las notificaciones en todo el territorio del Estado, resulta discriminatorio por considerar que los servicios postales de la Diputación únicamente podrían ser distribuidos por CORREOS en los próximos 15 años puesto que es el único operador, según la recurrente, que cuenta con cobertura en el 100% del territorio estatal. En cualquier caso, como pone de manifiesto el órgano de contratación, el resultado del concurso evidencia que dicha consideración no es correcta dado que la proposición técnica del tercer licitador ha sido puntuada con más del 50% necesario para no ser excluida por este criterio, habiéndose considerado que su oferta sí cuenta con una red de oficinas que cubre el territorio, si bien con menor intensidad que la de CORREOS.

Ante la insuficiencia de oficinas propias o agencias adheridas fuera del País Vasco que se integren en su red, la recurrente intenta garantizar la prestación del servicio en aquellos puntos donde no tiene cobertura propia mediante su tramitación por el operador designado para la prestación del servicio postal universal, pero sin plantear la red de CORREOS como parte de su red, lo que no garantiza, según señalan el órgano de contratación en su informe y la empresa adjudicataria en su escrito de alegaciones, todos los envíos incluidos en el apartado 4. “Servicios postales sujetos al contrato” del pliego de prescripciones técnicas, como los certificados con acuse de recibo y las notificaciones administrativas, que no se incluyen en el servicio postal universal, según lo dispuesto por el artículo 21 de la Ley 43/2010, de 30 de diciembre, del servicio postal universal, de los derechos de los usuarios y del mercado postal.

El Real Decreto 1298/2006, de 10 de noviembre, por el que se regula el acceso a la red postal pública y se determina el procedimiento de resolución de conflictos entre operadores postales, efectivamente concede a éstos el derecho a acceder y utilizar la red de CORREOS, pero este derecho se limita a los servicios incluidos en el servicio postal universal, según el artículo 2 del citado Real Decreto 1298/2006.

Y contrariamente a lo alegado por la recurrente, los operadores postales tienen que suscribir un acuerdo con CORREOS para fijar las condiciones de acceso a la red postal pública, de acuerdo con lo dispuesto por el artículo 3 del Real Decreto 1298/2006. Este contrato



errekurtsogileari eskatu zeren eta, kontratazio organoren txostenaren arabera, aldi baterako enpresa batasunaren eskaintzan ez baitzegoen inolako erreferentziak eta ez baitzen esaten bulego horiek haren sarekoak zirenik ere.

Errekurtsogileak, errekurtso idatziarekin batera, sarera sartzeko kontratu bat aurkeztu du. Berau CORREOSekin sinatua da, eta Bizkaiko lurraldeari eragiten dio; izan ere, kontratu haren indarrez, gutunak CAT Etxabarri (Bizkaia) onarpen masiboko zentroan entregatu behar dira kontratazio organoaren txostenaren arabera. Eta kontratu horrek dio kontratua bertan behera uzteko arrazoia izango dela bidalketa baten jatorria Bizkaia ez izatea. Horrek, begien bistakoa da, ez du bermatzen kontratu honen xede den zerbitzua ematea, kontratu honen araberako bidalketa guztiek Gipuzkoan baitute jatorria. CORREOSek berretsi egin du hori alegazio idatzian, esan baitu egun AKROPOST SAK ez duela sarera sartzeko inolako kontraturik Gipuzkoan.

**ZAZPIGARREN.-** Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 317.4 artikuluaen arabera, kontratazioko errekurtso bereziaren ebazpenak berekin ekarri behar du esleipen egintzaren etetea altxatzea baldin eta ematen den unean etenda jarraitzen badu.

**ZORTZIGARREN.-** Ez da ikusten errekurtsoa jartzean fede txarrik edo ausarkeriarik Epaitegiak errekurtsogileari inolako isunik jartzeko moduko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 317.5 artikulua dioenari jarraikiz.

Ondorioz, kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

#### ERABAKITZEN DU

**LEHENENGO.-** Ezestea AKROPOST GIPUZKOA SL – AKROPOST SERVICIOS POSTALES DEL PAÍS VASCO SA – M.F. PUBLIMAILING SL aldi baterako enpresa batasunak kontratazioan ezarritako errekurtso berezia.

**BIGARREN.-** Altxatzea Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 315. artikuluan aurreikusitako esleipen ekintzaren etete automatikoa.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 319.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekiko

no fue requerido a la recurrente porque, según señala en su informe el órgano de contratación, no había ninguna referencia a su existencia en la oferta de la UTE, ni ésta plantea las oficinas como parte de su red.

La recurrente acompaña a su escrito de recurso un contrato de acceso a red suscrito con CORREOS que corresponde a la provincia de Bizkaia, porque en virtud de dicho contrato, según ha advertido el órgano de contratación en su informe, la correspondencia debe ser entregada en el Centro de Admisión Masiva CAT Etxabarri (Bizkaia) y la entrega de envíos con origen en otra provincia distinta de Bizkaia será causa de resolución del contrato, lo que evidentemente no garantiza la prestación del servicio objeto del presente contrato porque todos los envíos objeto del mismo tienen su origen en Gipuzkoa. Este hecho ha sido ratificado por CORREOS en su escrito de alegaciones al señalar que en la actualidad AKROPOST S.A. no cuenta con ningún contrato de acceso a la red en la provincia de Gipuzkoa.

**SÉPTIMO.-** Según lo dispuesto en el artículo 317.4 de la LCSP, la resolución del recurso especial en materia de contratación debe acordar también el levantamiento de la suspensión del acto de adjudicación si en el momento de dictarla continuase suspendido.

**OCTAVO.-** No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer al recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 317.5 de la LCSP.

En su virtud, este Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

#### ACUERDA


**PRIMERO.-** Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la UTE AKROPOST GIPUZKOA S.L. – AKROPOST SERVICIOS POSTALES DEL PAÍS VASCO S.A. – M.F. PUBLIMAILING S.L.

**SEGUNDO.-** Levantar la suspensión automática del acto de adjudicación prevista en el artículo 315 de la LCSP.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 319.1 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de

**Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako  
Foru Auzitegi Administratiboa**

**Tribunal Administrativo Foral de  
Recursos Contractuales**



**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA  
DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**

Auzietarako Salaren aurrean, bi hilabeteko epean, Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses jakinarazpenaren biharamunetik aurrera. contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia-San Sebastián, 2012ko urtarrilaren 25/25 de enero de 2012.**